

Osaba Jose Luis

(Uncle Jose Luis)

Ansorena, Jose Ignazio

Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia – Miraconcha, 48.
20007 Donostia

BIBLID [1137-4470 (2002), 13; 33-36]

Recep.: 23.08.01

Acep.: 14.01.02

Omenduaren biografia eta giza alderdiaren datu batzuk aurkezten dira, artikulu egilearekiko erlazioaren ikuspegitik.

Giltza-Hitzak: Biografia. Jose Luis Ansorena. Eresbil. Aita Donostia.

Se presentan algunos datos biográficos y humanos del homenajeado en relación al autor del artículo.

Palabras Clave: Biografía. Jose Luis Ansorena. Eresbil. Aita Donostia.

On présente quelques données biographiques et humaines de la personne à laquelle il est rendu hommage, lié à l'auteur de l'article.

Mots Clés: Biographie. Jose Luis Ansorena. Eresbil. Aita Donostia.

ESKAINZA: Aurretik inori bururatu gabekoak asmatu, abian jarri, heltzen lagundu, zaindu, eta, fruitu mardul eta sasoiko bihurtu direnean, besteen eskuetan utzi herriaren mahaira eraman ditzaten. Horixe da herri artista zintzo izatea. Mila esker erakusteagatik.

Gure osaba Jose Luis Eresbil-go zuzendaritzatik erretiratu egin dela eta, zerbait idaztea eskatu dit Eusko Ikaskuntzak omenezko argitalpenerako. Ezin ezetz esan noski, atseginez egingo dut.

Osabak lan asko egin ditu eta nik baino hobeto beste batzuk aztertuko dituzte. Niri, iloba naizelako, ez dagokit lan horien gainean idaztea, gertutik ezagutzen dudan neurrian, galdera batzuei erantzuten saiatzea baizik. Nola da ba Jose Luis? Zeri zor zaio hainbeste lan egin izana? Zer egin du bere inguruan hainbeste lan, ekintza, jardun gogo pizteko? Eta horiei ez diet erantzungo kuxkuxeatzailearen ikuspuntu antzutik, baizik-eta gure gizarteak bera bezalako pertsonen behar handia duela eta eredutzat har daitekeela uste duen hurbileko mireslearen irizitik abiatuta.

Irakurleen artean gutxi ez dute jakingo osaba frailea dela, kaputxinoa. Baina bada ez bada ere, hasieratik gogoratuko dut. Behin baino gehiagotan kontatu arazi diot kaputxino joan zenean, apaiztegian eta geroago ere komentuan, nolako bizimodu gogorra zuten antolatua, janariaren aldetik batez ere. Zenbat *garizuma* egiten zuten urtean zehar,... Osaba ezagututa, nolako jale ona den, aho bizarrik ez duten horietakoa, galderak berehala datoz: ez zuen bada ondo pasako? Ez al zitzaion oso gogor gertatu? Ba al zekien nor sartzen zen? Piskana etorriko dira erantzunak.

Osabaren nire aurreneko oroitzapenak *Aita Isidro* –Padre Isidro de San Sebastián¹– zenekoak dira. Ni mutil mukitsua oraindik eta bera, bizarluze eta zaku kakakolore hura jantzita, musu ematera hurreratzen zenean:

– *Hazkurea ematen du* –horrela kezatzen gintzaizkien gurasoei anai zaharrena eta biok. Benetan, ordea, hazkurea baino gehiago beldurra ematen zigun hain gutxitan eta itxura horretan hurbiltzen zitzaigun gizonak.

Urte haietan Iruñean zen bera eta oso gutxitan izaten zuen gugana etortzeko baimenik. Eskolak ematen zituen Kaputxinoen Ikastetxean eta haurren korua –*Eskolanía*– sortua zuen. Abuztuan koru hartako haurrekin Urbasan kanpamendua antolatzen zuen. Eta anai Javi, Justo lehengusua eta hirurok ere hantxe sartzen ginen korukoekin batera, hogeai egunetako oporraldi ederra ematen genuela Euskal Herriko mendi bazterrik ederrenetako horretan.

Urbasako egun haietan beldur hura galdu egin genuen eta neurri handi batean harritu ere egin ginen gure osabak mendirako zuen zaletasunarekin. Nolako ibilaldi luzeak, nolako gustua transmititzen zigun hango inguruak era-

1. Berak gogorazi izan du gure aitona Isidrok aurreneko mezaren egunean itxura serioan, baina txantxetan esan ziona: Hemen aita Isidro ni naiz. Zu ez zara ez aita, ezta Isidro ere.

kustean... Baina errespetua ez genion inondik ere galdu. Ilobak ginen arren, ez genuen bat ere tratu desberdinik somatu gure eta beste haurren artean.

Geroxeago Zaragozara bidali zuten fraileek. Entzun nuenean, nire txikian, urrutiko basamortura bidaltzea iruditu zitzaidan. Etxean hasi ginen entzuten hango berri: gidatzeko txartela atera behar zuela komentuan erosketa ardura-dun jarri zutelako,... eta, hau sorpresa, oporretara etorri zen udaran astebe-terako eta automobil zahar batez! Orduan automobil gutxi ikusten ziren. Guretzat sekulako poza. Hainbat txango egin genuen berarekin aste hartan eta garai berrien usaina hartzen hasi ginen. Jantzi luzea erantzita, gurekin bainatzera etorri zen Santa Klara irlara. Gure osaba ia pertsona normala zen.

Jakin genuen Zaragozan pozik zegoela... eta koru bat sortu zuela. Harritzekoa! Halako batean, poz handia gure etxean: osabari destinu berria eman omen diote fraileek, Erretereria.

Nik Erretereria, oroimenean, osabaren bizar desagerketarekin lotzen dut. Eta nire gazte garaiekin. Ez dakit zergatik. Agjan bizarra kentzea bezain alda-keta handia erakarri zuelako Erreteriaratze horrek. Orduz geroztik, sarri iku-siko genuelako osaba, maiz etorriko zelako gurera elkarrekin bazkaltzera, gure bizitzan gertu-gertuko pertsona bihurtuko zelako.

Ez nuke inor mintzea nahi. Baina urte haietan Erretereria ez zen, fama aldetik, helburu desiratuena inorentzat. Osabari igandeetan aitonarekin eta gurekin bazkaltzera etortzen zenean, ordea, ez genion horren arrastorik somatzen. Alderantziz, bazirudien munduko lekurik ederrenean ari zela. Eta ederrago, batez ere pertsonentzat ederrago izan zedin, hamaika burutazio izaten zituen eta mahaiaren inguruan aipatzen. Nolako arazoak ziren herrian ikusten zituen noski, aipatu eta aztertu ere bai. Baina, haiek gainditzeko agertzen zuen gogoia, etorkizun poza, denoi itsasten zitzaigun eta berarekin batera bizitzen genuen. Koruaren sorrera, Musikaste, Eresbil... Jardun gogo-tsu baten ondorioak ziren. Harrituta, ikusten genuen helburu horien harira gero eta jende gehiago biltzen zitzaiola, guri bere ilusioak sartzen zitzaizkigun bezala, Erretererian jende askori antzekoa gertatzen ari zitzaiola. Eta herrian lortutako emaitza horiek gero eta maila altuagoa lortzen ari zirela kalitate aldetik baita zabalkunde aldetik ere.

Horraino iritsi direlako prestatu da argitalpen hau.

.....

Zergatik iritsi dira ba horraino? Ezin izango ditut nik arrazoin guztiak aipa-tu, baina nire begiralekutik ikusten ditudan oinarrizkoenak esan nahi nituzke.

Gipuzkoako Aldundiko Aretoan eratu zen zeremonia batean, urte batzuk direla, Gurutze Gorriak Sari bat eman zion osabari. *Laguntzaille Ohorezko* edo antzeko zer bait. Esker onez jaso zuen osabak eta hizketaldi laburra eskaini zigun jarraian. Hitz haien ardatza hauxe zen: doaneko lanaren ederra. Goraipamen inozorik gabe, errealitatetik kanpo gera daitezkeen asmo fanta-

siazkorik gabe, baina hala ere doan egiten den lanak emaileari nolako ordainketak itzultzen dizkion aztertu zituen. Bere fraile izanak horretarako erraztasun bereziak ematen zizkiola aitortuta, eta inori bidea jartzeko nahirik gabe, doan egiten den lanak benetako pagamendua izaten duela ezagutarazi zigun, lanaren beraren poza besterik ez bada ere. Eta hori asko dela.

Erreterria zinez eta bihotzez maite izan du osabak. Lehenago Iruñea edo Zaragoza maite izan zituen bezala. Aurrean duen oro maite duen bezala. Eta horren frogantzarik garbiena gure elkarrizketetan sarri agertu den aipamena.

- *Osaba, eta orain fraileek beste norabaitera bidaliko bazintuzte, zer?*
- *Prest nago. Badakit zein botu egin nituen.*

Erreterria maite du, hango jendeak eta kaleak maite ditu, bertan sortu zaizkion lagun eta adiskideak ditu maite, Iruñekoak gogoan ondo dituen bezala, Zaragozakoak ere ahaztu ez dituen gisan... Beste norabait bidaliko balute, nonbait hori eta horkoak maiteko lituzkeen era berean. Maitasun kontuan ere jale ona delako osaba, aho bizarrrik gabekoa. Urbasako artzain haren tankerakoa. Kaletarrak galdetu omen zion artzainari:

- *Zer eguraldi dator biharko?*
- *Nik maite dudana, ziur.*
- *Nola dakizu horren ziur?*
- *Datorrena datorrela, beti maite dudalako.*

Askori hitz joku inozoa irudituko zaio. Baina ez da horrela. Ondo erroztuta errealtatea baizik. Pertsonak bizitzako egun orotan bere buruarekin lan egiten duenean, bide zuzenak ikasteko, azaleko itxurak baztertze, muinak ezagutzeko... datorrena datorrela beti maite izaten du.

Gure osabarengandik hurbil bizi izan direnek ezagutu dute bere *ahulezia* bat. Aita Donostiak sortutako *Jesus mi dulcissime* motetea entzutean edo zuzentzean emozioak gainezka egin izan dio eta negar malko batzuk isuri masailetan behera. Itxura handirik gabe, eutsi ezinaren ezinez, malko horiek barruko bidea erakutsi digute, non dagoen sustraituta barne-barnean, hain-besterak aukera eman duen kemenen. Eta hitzaren zentzurik xaloenean fedea da sustrai lekua. Ez fede estu txikia, kontu ezinekoa esateko asmatu ditugun ipuinei erreparatzen diena, baizik-eta kontu ezineko horri aurrez aurre begira heldu eta mamitu den fedea. Hermann Hessek esan zuena: *fedea izatea ez da jakitea, itxaropena izatea baizik*. Eta nork itxaropen handiagorik itxaropen egileak baino? Itxaropena praktikatzen itxaropena sortzen da. Horixe da bidea.

Erretiratzeko garaian ere, osaba Jose Luisek itxaropen bideak argitu dizkiugu. Inork ezer adierazi gabe, berak erabaki du bazela besteei bidea uzteko garaia. Berak utzita, badira jarraitzaileak. Berak gidaritza laga arren, lanean jarraituko du. Eta doan noski. Eta Urbasara joaten ere bai. Eta aho bizarrrik gabe jaten. Eta *O, Jesu mi dulcissime, Tu spes mea in terra viventium* errainetan otoiitz egiten.